

IGNACIO ROTAECHE FAMILIEN FUNTSAREN ISAD

Identifikazio-arloa

Erreferentziako kodea	ES 48020 AHFB/BFHA FAM ROT
Titulua	Rotaeche
Data(k)	1857 - 1945
Deskribapen maila	Funtsa
Deskribapen-unitatearen bolumena eta euskarria	<ul style="list-style-type: none"> - Metro linealak: 14,00 m.l. - Katalogatutako espedienteen kopurua: 1225 Papera.

Testuinguru arloa

Ekoizlearen izena	Ignacio Rotaeche Velasco
Instituzio historia	<p>Ignacio Rotaeche Velasco (Gasteiz, 1888 - Zeanuri, 1951), Madrilgo Bide Ingeniarien Eskolan ikasi zuen, eta 1910ean hautatu zuten Estatu Batuetan ikasketak zabaltzeko. Itzuli zenean, Bide Ingeniarien Kidegoko administrazio-eskalafoian sartu zen.</p> <p>1916an Juana Chalbaud Amann-ekin (1895 - 1979) ezkondu zen, Pedro Chalbaud Errazquinen alaba, Unión Española de Explosivos erakundeko presidentea eta Euskal Komunio Nazionalista alderdiko senataria.</p> <p>Profesional gisa, Marokoko Trenbideen Azterketa Batzordean, Espainiako Hegoaldeko Herri Lanen Buruzagitzan eta Bilboko Portuan egon zen, baita La Roblako trenbideen kudeaketan, Zeanurirako uren ekartzean eta errepedeen zenbait trazaduratan ere. Baina bere obrako gauzarik nabarmenena Bilboko bi zubi mugikorren diseinua da (Deustu eta Udala).</p> <p>Politikari gisa, euskal nazionalismoarekin bat zetozen ideiek Bizkaí Buru Baltzarreko lehendakaritzara eraman zuten eta, 1929an, Euzkadi Buru Baltzarrera, erradikal aberriarren zatiketa gertatu zenean. Euskal Komunio Nazionalistako karguari eutsi zion, 1930ean berriro elkartu zen arte. Elkartetaren sustatzaileetako bat izan zen.</p>



Instituzio historia	Gerra Zibila hasi zenean, Donibane Lohizunera (Frantzia) erbesteratu zen; ondoren, Venezuelara emigratu zuen eta, azkenik, Portugalera joan zen. Han, Lindosoko presaren lanak zuzendu zituen. 1943an bere kausa berrikusteak Espainian sartzea erraztu zion, baina Euskal Probintzietatik eta Kataluniatik erbesteratu zuten. 1940an, Sustapen Ministerioak bere lana berretsi zuen.
Artxibo historia	2015ean, funts hau Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoan sartu zen, eta urte berean katalogatu zen.
Sarrera modua	Dohaintza.

Eduki eta egitura arloa

Irismena eta edukia	Ignacio de Rotaeché Velasco ingeniariaren artxiboaren zati bat da, haren oinordekoek banatu egin baitzuten.
Erakundea	Katalogazioak koadro hau eman du, eduki tematikoa helarazteko: <ul style="list-style-type: none"> – Jarduera publikoak (kargu publiko gisa): 6 dokumentu 1906 eta 1934 bitartekoak. – Enpresa-jarduera: 1218 dokumentu 1857 eta 1947 bitartekoak. – Familiakoak ez diren agiriak: 1 dokumentu 1930ekoa.

Lotutako dokumentazio arloa

Lotutako deskribapen unitatea	Rotaeché funtsarekin lotutako dokumentu-iturriak daude BFAHko Administrazioa eta Udal ataletan. Agiritegi Historiko Nazionalean eta Bilboko Udal Agiritegian aurkitzen da dokumentazioa.
Argitalpenei buruzko oharra	Cava Mesa, María Jesús. Historiaren Errege Akademia.

Kontrol arloa

Artxibozainaren oharra	Actuaciones Culturales Estrategicas 4, S.L. enpresak Familiak atalerako egindako deskribapena.
Deskribapenaren data	20/01/2020